

## Grafenoaren, karbono-nanohodien eta haiekin lotutako materialen kimikako nazioarteko biltzarra Donostian

Donostiako Miramar jauregiak dimentsio txikiko materialen goi mailako zientzialariak hartuko ditu ChemOnTubes 2022 biltzarrean, apirilaren 24tik 28ra.

Biltzarraren helburua da arloko azken emaitza garrantzitsuenak partekatzea, baita etorkizun handieneko ikerketa-taldeen arteko harremanak sustatzea ere.

**Donostian, 2022ko apirilaren 25ean.** [ChemOnTubes 2022](#) biltzarra hasi zen atzo, apirilaren 24an, Donostiako Miramar jauregian. Biltzarra CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak antolatu du. Bost egunez, karbonoan oinarritutako nanomaterialen eta haiekin lotutako materialen (hala nola karbono-nanohodien, grafenoaren eta haren deribatuen, karbono-nanopuntuen, sortze bidean diren bi dimentsioko material berrien) kimikari eta aplikazioei buruzko ikerketaren abangoardiaren erdigunea izango da Donostia. Material horiek gure bizitza aldatzeko ahalmen handia dute alderdi askotan.

Maurizio Prato Ikerbasqueko eta AXA katedrako irakasleak —CIC biomaGUNEko [Karbonoaren Bionanoteknologia](#) taldeko ikertzaile nagusia eta ekitaldiaren anfitrioietako bat— halako jardunaldien garrantzia nabarmendu du: “Halako biltzarretan, azken belaunaldiko ikerlan ugari ematen zaizkie ezagutzera bai mundu akademikoko profesionalei bai sektoreko enpresei ere. Dimentsio nanometrikoko materialen kimikaren arloko azken emaitza esanguratsuenak aurkeztuko ditugu, eta, bereziki, sintesiaren, aldaketa kimikoaren eta haien aplikazioen arloko azken aurrerapenak aztertuko ditugu”.

“Oso pozik gaude aurkeztu dugun dimentsio nanometrikoko materialen alorreko [programa](#) paregabearekin —erantsi du Alejandro Criado CICA-Universidade da Coruñaeko Ramón y Cajal ikertzaile eta biltzarreko beste anfitrioietako bat denak—; izan ere, 11 [hizlari](#) gonbidatu (erreferente direnak nazioartean, dagozkien esparruetan), 50 komunikazio eta 3 poster-saio izango ditugu. Gonbidatutako hizlariak munduko leku askotatik etorri dira: Michigango Unibertsitatea, Polymat, Lilleko Unibertsitatea, Santiago de Compostelako Unibertsitatea, CNRS Strasburg, Friedrich-Alexander Unibertsitatea, Heidelbergeko Unibertsitatea, Bordeleko Unibertsitatea, Manchesterreko Unibertsitatea, Triesteko Unibertsitatea eta Pennsylvaniako Estatuko Unibertsitatea. Gainera, “biltzarrean izena eman duten pertsonak ere hainbat herrialdeetakoak dira, besteak beste, Frantzia, Italia, Alemania, Espainia, Ingalaterra, Israel, Brasil eta Estatu Batuak”, esan du.

ChemOnTubes 2022k erakunde hauen laguntza izan du: UPV/EHUren Uda Ikastaroak Fundazioa, CIC biomaGUNE ikerketa-zentroa, CICA -Coruñaeko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritzza, AXA Research Fund, Fisher Scientific, Donostiako Sustapena, Carlo Erba, Société Francophone d'étude des Carbones (SFEC), Kimikako Espainiako Errege Elkartearen (RSEQ) Nanozientzian eta Material Molekularretan Espezializatutako Taldea (GENAM) eta ApplyNano. Antolatzaileek,

halaber, eskertzen dute ACS Nano aldizkariak, Nanoscale aldizkariak eta Sharlab-ek emandako laguntza.

ChemOnTubes-en zortzigarren edizioa da hau, 2006an Arcachonen egin zen lehen edizioaz geroztik; haren ondoren, ChemOnTubes 2008 (Zaragoza), ChemOnTubes 2010 (Arcachon), ChemOnTubes 2012 (Arcachon), ChemOnTubes 2014 (Riva del Garda), ChemOnTubes 2016 (Brusela) eta ChemOnTubes 2018 (Biarritz) izan dira.

### **CIC biomaGUNEri buruz**

CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, bai eta haien aplikazio biomedikoetan ere 2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.